

ERABILERAREN BALDINTZA OROKORRAK ETA DATU PERTSONALAK BABESTEKO POLITIKA

Mesedez, irakurri arretaz erabilera-baldintzak web orriko toki hau erabili baino lehen. Web toki hau erabiliz gero, erabiltzaileak inplizituki baldintza hauek onartzen ditu. Horiekin bat ez bazaude edo zalantzarik baduzu, ez erregistratzea eta web orria ez erabiltzea eskatzen dizugu.

1. ZEIN GARA?

San Jose de Floreaga Ikastetxeak ondorengo helbidea du: Izarraitz, z/g; AZKOITIA 20720 Website honekin edo bere zerbitzuekin zerikusia duen edozein gaitarako www.floreaga.com domeinua San Jose de Floreaga Ikastetxearena da.

2. ZER DA San Jose de Floreaga Ikastetxea.REN WEB SITE DELAKOA?

Orain www.floreaga.org tokian zaude. Hori espazio elkarreragilea da eta San Jose de Floreaga Ikastetxeak sortu du produktu eta zerbitzuei buruz informazio handiagoa eskaintzeko.

Web toki guztiek bezala, erabilaren eta pribatutasun-politikaren baldintzak bete behar ditugu. Nolanahi ere, aurreratu nahi dizugu gure nahia produktuak eta zerbitzuak modu dibertigarrian eta bizian eskaintzea dela. Ildo horri jarraiki, orri honetan ez dira produktuak zuzenean saltzen.

3. FITXA TEKNIKOA

Web toki honetaz gozatzeko, erabiltzaileak nabigatzailea izan beharko du; Hobe PCrako edo Macerako Internet Explorer 5.5 edo goi mailakoa bada. Halaber, monitoreak gutxienez 800 x 600 pixel izango ditu eta Macromediako Flash plug-in delakoa behar da. Azkenekoa doan deskarga daiteke hurrengo helbidetik: <http://www.macromedia.com>. San Jose de Floreaga Ikastetxeak beharrezkotzat jotzen dituen aldaketa teknikoak egin ahal izango ditu kalitatea, sistemaren eraginkortasuna eta errendimendua eta gai-sareetara eta Internetera konexioa hobetzeko.

4.- WEB ORRIAREN JABETZA ETA ERABILERA-MUGAK

Web orri hau San Jose de Floreaga Ikastetxearena da. Markak, domeinu-izenak eta jabetza intelektualaren gainerako eskubideak San Jose de Floreaga Ikastetxearenak dira. Beraz, ezin daiteke edukirik laga, kopia, erreproduzi, argitara, karga, transmiti, bana edo ustia. Salbuespen bakarra web orria eta helburuekin bat web orria erabiltzea da. Ildo horri jarraiki, deskarga eta kopia pribatuak egin daitezke, baina baldintza hauetan zehaztutako erabileretatik kanpo atera gabe. Aurrekoaren kontra eginez gero, egilearen edo San Jose de Floreaga Ikastetxearen jabetza-eskubideak bortxatuko dira. Edukiak hemen baimentzen ditugun helburuetatik kanpo erabiliz gero edo helburu horiek aldatuz gero, egilearen jabetza-eskubideak eta San Jose de Floreaga Ikastetxearen jabetza-eskubideak bortxatuko dira. Erabilera-baldintza hauetarako debekatuta dago eduki hauek beste edozein web orritan edo sare informatikotan erabiltzea.